

{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

# Imazen eta Atxurraren adierazpen susmagarriak

Lehenik, Josu Jon Imazek ohartarazi zuen «behar bezain erakargarria» izango zen erregulazio-ingururik ez bazegoen, Repsolek beste aukera batzuk zituela bere inbertsioetarako. Egun batzuk geroago, urriaren 30ean, Repsolen filialak, Petronorrek, oharra bidali zion Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, hiruhileko emaitzekin, esanez hidrogenoa ekoizteko elektrolizagailu batean eta erregai sintetikoa ekoizteko planta batean egitekoak ziren inbertsioak «stand by» egoeran zeudela. Emiliano Lopez Atxurra Petronorreko presidentea adierazi duenez, inbertsio horiek geldirik jarraituko dute arau-esparru egonkorra eta aurreikusteko modukoa egon arte.

Mundu guztiak interpretatu ditu mugimendu horiek etorkizuneko gobernu espainiarrari egindako presio gisa, energien gaineko ezohiko zerga ezaba dezan. Eta xantaia bat dirudi. Hala ere, azpimarratu beharreko bi gai daudela uste dut.

Batetik, hidrogeno berdean egiten diren inbertsioak gelditzen ari dira leku guztietan. Urrunago joan gabe, joan den ostira-lean, Plug Power hidrogeno-enpresak ohartarazi zuen finantzaketarik ezak «funtsezko zalantzak» sortzen dituela «enpresak funtzionatzen jarraitzeko duen gaitasunari buruz». Hidrogenoaren sukarrak behera egin duela dirudi. Agian konturatu dira hidrogenoa ez dela hain errentagarria; edo trantsizio-kostuak izugarriak direla; edo lehentasunak aldatu egin direla mundu ezegonkor honetan: badirudi orain lehentasuna ez dela ingurumena, lehengai kritikoen hornidura bermatzea baizik.

Bestalde, Josu Jonek beti etorkizuneko alternatiba gisa azpimarratzen ditu erregai sintetikoak. Egun, ohikoak baino garestiagoak dira; eta ez diote ezer ekartzen CO2aren murrizketari, atmosferatik xurga-

tzen dutena kontsumitzen direnean isurtzen baitute berriz. Beraz, agian, konturatu dira zenbakiek ez dutela ematen, inbertsioak gelditzea erabaki dute eta, bide batez, Gobernuari presioa sartzeko aprobetxatu dute.

Bestalde, Atxurrak gogorarazi zuen 2019tik Petronorrek 3.000 milioi eman zizkiola Bizkaiko Ogasunari, eta beste 2.000, Estatuko Ogasunari. Petronorrek, enpresa guztiek bezala, BEZa eta zerga bereziak bildu eta Ogasunari eman behar dizkio. Zerga horiek ez ditu Petronorrek ordaintzen; azken batean, Petronorrek fintzen duen gasolina edo diesela erosten dutenek ordaintzen dituzte. Beraz, Petronorrek ez dio diru-kopuru hori Ogasunari ematen; Ogasunaren kontura bildzen ditu. Ziur aski, milaka milioi horietan sartu du lortzen dituen irabaziengatik ordaintzen duena, zer-

Agian, Repsol eta Petronor konturatu dira zenbakiek ez dutela ematen, inbertsioak gelditzea erabaki dute eta, bide batez, Gobernuari presioa sartzeko aprobetxatu dute

bait ordaintzen badu. Hori litzateke Petronorrek Bizkaiko Ogasunari ematen dion zatia. Baina, lotsagatik edo, bere memorian ez du esaten zenbat den, jendeak jakin dezan. Litekeena da legediak aurreikusten dituen onura fiskal guztiak aplikatu ondoren, Petronorrek, enpresa handi gehienek bezala, bere mozkinengatik, «zero eta ezerezaren» artean ordaintzea, Ignacio Zubiriren adierazpen zoriontsuan. Datu horrek baliabide publikoei ekarpen garrantzitsua egiten dielako diskurtsoa zapuztuko lioke. Beraz, 3.000 eta 2.000 milioiko ekarpen hori ez da zuzena; tabernako eztabaida bati dagokionez, herri honetako enpresa nagusietako bateko presidenteari dagokionez baino. •